bakoitzaren autonomia errespetatuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapari erantsiko zaion mapa bat ezarriko dute elkarren arteko adostasunez. Foru-aldundi bakoitzak sarea planifikatzeko eta Mapa eta udalei zerbitzuen sarea hedatzen lagunduko dieten beste prozesu batzuk egiteko prozesua bideratuko du, hala nola mankomunitateen edo beste udal-elkarte batzuen eraketa".

*desde el respeto a la autonomía de cada institución, y lleguen a establecer de común acuerdo un mapa que se anexaría al Mapa de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. La Diputación Foral respectiva facilitaría el proceso de planificación de la red y la elaboración del Mapa e incluso otros procesos que puedan servir de ayuda a los ayuntamientos para desplegar la red de servicios, como la constitución de mancomunidades u otras agrupaciones municipales*".

*Baliabideen kudeaketa edo hornidura partekaturako aukerei dagokienez, Gizarte Zerbitzuen Legeak hau dio udalei buruz: "Ardurapean dituzten gizarte-zerbitzuak hobeto eskaintze aldera hala egin behar dutela uste badute,* **udalek elkartzeko aukera ere badute. Halakoetan, udalek sortzen duten antolakundearen eskuetan utziko dituzte lege honen bidez jaso behar dituzten eskumenak**" (28.2 artikulua). Zorroari buruzko Dekretuak ezartzen duenez, "kudeaketa publikoaren arreta, efikazia eta eraginkortasuna hobetzeko asmoz, beren eskumeneko zerbitzuak ematea agindu ahal izango dute euskal administrazio publikoek, ordenamendu juridikoan aurreikusitako tresnak erabiliz" (3.2 artikulua).

Con relación a las posibilidades de gestión o provisión compartida de los recursos, la Ley de Servicios Sociales señala, en referencia a los ayuntamientos, que "*cuando lo estimen oportuno para garantizar la mejor prestación de los servicios sociales de su competencia,* ***los ayuntamientos podrán agruparse y encomendar a la entidad organizativa resultante de dicha agrupación el ejercicio de las competencias que les son atribuidas en la presente ley***" (artículo 28.2). El Decreto de Cartera establece que "*con el fin de mejorar la atención, la eficacia y la eficiencia de la gestión pública, las administraciones públicas vascas podrán encomendar la prestación de los servicios de su competencia mediante los instrumentos previstos en el ordenamiento jurídico*" (artículo 3.2).

*Zorroari buruzko Dekretuak baliabideak dituzten eta baliabiderik ez duten udalerrien artean zehaztu beharreko konpentsazio ekonomikoa ezartzen du 13. artikuluan. Artikulu horren lehen paragrafoan adierazten denez,* "Euskal administrazio publikoek zerbitzuak lortzeko eta zerbitzuetan jarraitzeko baldintzak malgutu ahal izango dituzte, beren kabuz edo beraien arteko akordioen bitartez; akordio horiek lortuz gero, konpentsazio

El Decreto de Cartera establece la compensación económica que debería producirse entre los municipios que disponen de recursos y los que no, en el artículo 13. En el primer párrafo de ese artículo, se dice que "*las administraciones públicas vascas, por sí mismas o mediante acuerdos entre sí, podrán flexibilizar los requisitos de acceso y permanencia en los servicios, estableciendo en dichos acuerdos, si se alcanzan, la oportuna compensación*

ekonomikoa ezarri beharko da, baldintzak malgutu zaizkion zerbitzuaren titularra den administrazioaren alde".

*Konpentsazio orokorra Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren 4.5.3 ekintzan dago aurreikusita. Hauxe du helburu: toki-erakunde batek beste toki-erakunde baten titulartasunpean dagoen edo beste toki-erakunde batek kudeatzen duen baliabide bat erabiltzeko aukera bermatzea.*

*Azkenik, Gizarte Zerbitzuen Mapa aztertzean adierazi dugunez, Zorroari buruzko Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak hau ezartzen du:* "Dekretu honetako prestazio eta zerbitzu berriak edo gutxi samar garatutakoak emateko finantzaketa egokia bermatzeko, administrazio publiko eskudunek, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren baitan, eraginkorrenak direla deritzen finantza-lankidetzako formulak adostuko dituzte, 2015eko abenduaren 31 baino lehen, betiere Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 56.artikuluan eta hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoaren arabera eta haietan aurreikusitakoa garatzeko".

## *2. Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapa*

*2016-2019 aldiko EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak jasotzen duenez:*

- *Legearen eskumen-araubidean (41. eta 42. artikuluetan eta, batik bat, bi artikuluon bigarren zenbakian) aurreikusitakoari jarraikiz, beren eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak*

*económica a favor de la administración titular del servicio cuyas condiciones se han flexibilizado*".

La compensación general está prevista en la acción 4.5.3 del Plan Estratégico de Servicios Sociales, cuyo objetivo es el establecimiento de criterios y mecanismos de compensación económica para que un ente local pueda garantizar el acceso a un centro en un recurso de titularidad de otro ente local o gestionado por otro ente local.

Finalmente, como ya se ha señalado al analizar el Mapa de Servicios Sociales, la disposición adicional segunda del Decreto de Cartera establece que "*al objeto de garantizar la adecuada financiación para la provisión de las prestaciones y los servicios nuevos o escasamente desarrollados contenidos en el presente Decreto y con anterioridad al 31 de diciembre de 2015, las Administraciones públicas competentes acordarán, en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, aquellas fórmulas de colaboración financiera que se entiendan más eficaces de conformidad y en desarrollo de lo previsto en el artículo 56 y disposición transitoria tercera de la Ley de Servicios Sociales, de 5 de diciembre, de servicios sociales*".

## 2. Mapa de Servicios Sociales de Bizkaia

El Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV 2016-2019 recoge que:

- Las Diputaciones Forales y los Entes locales, de acuerdo con lo previsto en el régimen competencial de la ley (artículos 41 y 42, y en particular en el apartado segundo de ambos

Código de validación/*Balidazio kodea*
2P2P375U3I085B4F1ALE

*hedatzeko plangintza egingo dute foru-aldundiek eta tokiko erakundeek.*

- *Plangintza horretan, EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan eta Mapan xedatutako irizpide orokorrak hartu beharko dituzte aintzat: biztanleriari buruzko hedapen-irizpideak (35.4 artikulua); gutxieneko estaldura-mailak eta adierazle sintetikoa (36.4 artikulua); Katalogoan zehazten diren zerbitzuak ezartze aldera, biztanleriari dagozkion irizpiderik egokienak (36.1, 2 eta 3 artikuluak).*
- *Foru-aldundiak, tokiko erakundeekin lankidetzan eta erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuta, buru izan daitezke Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa egiteko prozesuan. Mapa horretan, foru- nahiz udal-eskumeneko baliabideak sartu behar dira, eta zentroak lurraldean hedatzeko proposamena ere egin beharko da".*
- *Erakunde bakoitzaren plangintza eta, dagokionean, lurralde historikoko mapak eranskin gisa txertatuko dira EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan.*

*Testuinguru horretan, helburua da Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapa EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan eta Mapan zehaztutako irizpide orokorren (hots, hedapen eta estalduren inguruko biztanleria-irizpideen) esparruan lantzea.*

artículos) realizarán una planificación del despliegue de los servicios y prestaciones económicas de su competencia.

- En dicha planificación deberán tener en cuenta los criterios generales establecidos en el Plan estratégico y el Mapa de Servicios Sociales de la CAPV: criterios poblacionales de despliegue (art.35.4); coberturas mínimas e indicador sintético (art.36.4); criterios poblacionales considerados más idóneos para la implantación de los diferentes servicios del Catálogo (art.36.1, 2 y 3).
- Las Diputaciones Forales, en colaboración con los Entes locales y desde el respeto a la autonomía de cada institución, podrán liderar la elaboración del Mapa de Servicios Sociales del Territorio Histórico que incluya los recursos tanto de competencia foral como municipal y realice un planteamiento respecto al despliegue de los centros en el territorio.
- La planificación de cada institución y/o, en su caso, los mapas a nivel del Territorio Histórico se integrarán como anexo en el Plan estratégico de Servicios Sociales de la CAPV.

En este contexto, el objetivo es la elaboración del Mapa de Servicios Sociales de Bizkaia en el marco de los criterios generales definidos en el Plan estratégico y el Mapa de Servicios Sociales de la CAPV (criterios poblacionales de despliegue y

coberturas)

- *Bizkaiko gizarte-zerbitzuen lurralde-antolamendu egoki baterako parametroak zehaztea eta garatu beharreko zerbitzuak dagokionean kokatuko diren mugapen geografikoak ezartzea.*

- Definición de los parámetros para una adecuada ordenación territorial de los servicios sociales en Bizkaia, estableciendo las delimitaciones geográficas en la que se ubicarán, en su caso, servicios a desarrollar.

- *Egungo egoeraren estimazioa eta etorkizunerako proiekzioa egitea, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan estaldurei dagokienez ezarritako zerbitzu eta prestazioen garapenaren inguruko helburuei jarraikiz.*

- Estimación de la situación actual y proyección a futuro de acuerdo a los objetivos de desarrollo de servicios y prestaciones establecidos en el Mapa de Servicios Sociales de la CAPV, en cuanto a coberturas.

- *Bizkaiko Lurralde Historikoan gizarte-zerbitzuen erantzukizun publikoko sarearen eskaintza hedatzeko zereginaren plangintza egitea.*

- Planificación del despliegue de la oferta de la red de responsabilidad pública de servicios sociales en el Territorio Histórico de Bizkaia.

*EAEko Gizarte Zerbitzuen Legea, Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretua eta Gizarte Zerbitzuen Mapa betez, Bizkaiko ERAKUNDE ARTEKO MAHAIAK Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa onartu zuen 2016ko ekainaren 21ean, eta zerbitzuen zonakatzea ezartzen da bertan. 7 udal-ordezkarik eta 7 foru-ordezkarik osatzen duten mahai paritario bat da, eta Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren hedapenaren jarraipena egitea du helburu.*

En cumplimiento de la Ley de SS sociales, del Decreto de Cartera y del Mapa de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la MESA INTERINSTITUCIONAL de Servicios Sociales de Bizkaia (Mesa paritaria compuesta por 7 representantes municipales y 7 representantes forales, cuyo objeto es el seguimiento del despliegue del Sistema Vasco de Servicios Sociales en Bizkaia) aprueba el 21 de junio de 2016 el Mapa de Servicios Sociales del territorio Histórico de Bizakaia, en el que se establece la zonificación de los servicios.

*Zonakatze horretan, Ermuko eta Mallabiko udalerriek Gizarte Zerbitzuen Eremua eratuko dute. Ondorioz, Ermuko Udalak eta Mallabiko Udalak, bakoitzak bere aldetik, Oinarrizko Eremuari esleitutako gizarte-zerbitzuak emango dituzte eta,*

En dicha zonificación, se establece que los municipios de Ermua y Mallabia constituirán un Área de Servicios Sociales y, en consecuencia, el Ayuntamiento de Ermua y el Ayuntamiento de Mallabia prestarán, cada uno de ellos por separado, los

*elkarrekin, Eremuko mugapeari esleitutako gizarte-zerbitzuak nola eman erabakiko dute.*

Servicios Sociales atribuidos a la demarcación de Zona Básica y, de manera agrupada, acordarán los términos de la prestación de los Servicios Sociales asignados a la demarcación Área.

*Lurralde-mugape bakoitzari esleitutako zerbitzuak ondorengo koadroan jasotakoak dira:*

Los servicios asignados a cada demarcación territorial, son los que se recogen en el cuadro siguiente:

| **Demarcación** | **Competencia MUNICIPAL** |
|---|---|
| **ZONA BÁSICA** | 1.1. Servicio de información, valoración, diagnóstico y orientación. |
| | 1.2. Servicio de Ayuda a Domicilio. |
| | 1.3. Servicio de intervención socioeducativa y psicosocial. |
| | 1.4. Servicio de apoyo a personas cuidadoras. |
| **ÁREA** | 1.7.1. Servicio de atención diurna para personas mayores |
| | 1.9.1. Piso de acogida |
| | 1.9.3. Apartamentos tutelados (personas mayores) |
| | 1.9.4. Vivienda comunitaria (personas mayores) |

| ***Mugapea*** | ***UDALAREN eskuduntza*** |
|---|---|
| ***OINARRIZKO EREMUA*** | *1.1. Informazioko, balioespeneko, diagnostikoko eta orientazioko zerbitzua* |
| | *1.2. Etxeko Laguntza Zerbitzua* |
| | *1.3. Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua* |
| | *1.4. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua* |
| ***EREMUA*** | *1.7.1. Adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua* |
| | *1.9.1. Abegi-etxea* |
| | *1.9.3. Tutoretzapeko apartamentuak (adinekoentzat)* |
| | *1.9.4. Etxebizitza komunitarioa (adinekoentzat)* |

*Arestian azaldutako guztiaren ondorioz, legez esleitu zaizkien eskumenak baliatuz eta dagozkien betebeharrak betez, Ermuko eta Mallabiko Udalek adierazi dute bat datozela Eremuko mugapeari dagozkion lehen mailako arretako Gizarte Zerbitzuak ematea helburu duen HITZARMEN hau izenpetzeko, honako estipulazio hauei jarraikiz:*

En consecuencia de todo lo anteriormente expuesto, en el ejercicio de las competencias que le son atribuidas por la Ley y en cumplimiento de sus respectivas obligaciones, el Ayuntamiento de Ermua y el Ayuntamiento de Mallabia, manifiestan su conformidad para suscribir el presente CONVENIO para la prestación de los Servicios Sociales de atención primaria

correspondientes a la demarcación de Área, de acuerdo a las siguientes

***ESTIPULAZIOAK***

***Lehena**. Bi alderdiek Hitzarmen hau izenpetzeko ahalmen nahikoa aitortzen diote elkarri. Ermuko Udalaren izenean, bertako alkate-presidente Carlos Totorika Izagirrek dihardu, eta Mallabiko Udalaren izenean, berriz, bertako alkate Igor Aguirre Barrientosek.*

***Bigarrena**. Ermua herririk handiena denez eta, beraz, hitzarmen hau sinatzen den unean Gizarte Zerbitzuen Zorrorik handiena duenez, aplikatu beharreko araudiaren ondoriozko eskakizunari jarraikiz, Mallabiko udalerriaren eskura jarriko ditu eremuak esleituta dituen eta bi udalerriek nahitaez bete behar dituzten zerbitzuak. Horrek, nolanahi ere, ez du esan nahi Hitzarmena sinatzen duen udal bakoitzari gizarte-zerbitzuen arloan lege-xedapenez dagokion eskumenaren titulartasuna lagatzen denik.*

***Hirugarrena.** Ermuko eta Mallabiko Udalek behar adinako zuzkidura ekonomikoa dute beraien udal-aurrekontuetan konprometituta, hitzarmen honen aitzinsolasean behar bezala deskribatu diren norainokoarekin eta hedapenarekin eman behar dituzten nahitaezko zerbitzu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiak 2016ko ekainaren 21ean onartutako Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarrita dauden baldintzetan emateko.*

**ESTIPULACIONES**

**Primera.** Ambas partes se reconocen facultad suficiente para suscribir el presente Convenio, actuando por parte del Ayuntamiento de Ermua su Alcalde Presidente, D. Carlos Totorika Izagirre, y por parte del Ayuntamiento de Mallabia su Alcalde Presidente, D. Igor Aguirre Barrientos.

**Segunda.** Siendo Ermua la población de mayor entidad, y por tanto la que presenta en el momento de la firma del presente convenio una Cartera de Servicios Sociales más amplia, de acuerdo a la exigencia emanada de la normativa de aplicación, será quien ponga a disposición del Municipio de Mallabia los servicios atribuidos al Área y que son de obligado cumplimiento para ambos ayuntamientos, sin que ello suponga en ningún caso cesión de la titularidad de la competencia que en materia de Servicios Sociales corresponde a cada Ayuntamiento firmante del Convenio, por disposición legal.

**Tercera.** Los Servicios Sociales que prestan los Ayuntamientos de Ermua y Mallabia, respectivamente, con el alcance y extensión suficientemente descritos en el preámbulo de este Convenio, cuentan con la dotación económica necesaria y suficiente comprometida en sus respectivos Presupuestos municipales, para atender este servicio de naturaleza obligatoria, en los términos establecidos en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en el Mapa de Servicios Sociales de Bizkaia aprobado el 21 de junio de 2016 por la Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales de

Bizkaia.

***Laugarrena**. Hala eta guztiz ere, Hitzarmen honen indarraldian Mallabiko Udalak erabakia hartzen badu udal-autonomiaren printzipioa baliatuz Hitzarmen honi lotutako zerbitzuren batez hornitzeko, salbuetsita egongo da zerbitzu horretarako ezarritako baldintzak betetzeaz, eta horrek ez du eraginik izango hitzarmen honi lotutako gainerako zerbitzuetan.*

**Cuarta.** Esto no obstante, si durante la vigencia del presente Convenio, el Ayuntamiento de Mallabia, en el ejercicio del principio de autonomía municipal, tomara la decisión de proveerse de alguno de los servicios acogidos al presente convenio, quedaría exonerado del cumplimiento de las condiciones establecidas para el servicio de que se trate, sin que afecte al resto de servicios recogidos en este convenio.

***Bosgarrena**. Eremuko mugapeari atxikitako zerbitzuak sortu edo garatzeko beharra kontuan hartuta, hitzarmen honen indarraldian zerbitzu gehiago atxiki behar badira edo daudenak funtsean aldatzen badira, akordio gehigarri bat jasoko da hitzarmen honi erantsita.*

**Quinta.** Habida cuenta de la necesidad de creación o desarrollo de los servicios adscritos a la demarcación Área, si durante la vigencia del presente convenio se tuvieran que adscribir nuevos servicios o se modificaran sustancialmente los existentes, se recogerá un acuerdo adicional anexo al presente convenio.

***Seigarrena**. Ermuko Udalak, Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapa aplikatuz, konpromisoa hartu du Gizarte Zerbitzuen Eremuko lurralde-mugapeari esleitutako lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen hornikuntza bere gain hartzeko. Gaur egun, zerbitzu eta programa hauek dira, segidan zehaztuko den hornidura-planaren arabera:*

**Sexta.** El Ayuntamiento de Ermua, en aplicación del Mapa de Servicios Sociales de Bizkaia, se compromete a la provisión de los Servicios Sociales de atención primaria asignados a la demarcación territorial de Área de Servicios Sociales, que actualmente consiste en los siguientes servicios y programas, según el plan de provisión que se detalla a continuación:

| Nº. SERVICIO | DENOMINACIÓN DECRETO | SERVICIO MUNICIPAL | FORMA DE PROVISIÓN |
|---|---|---|---|
| 1.7 | 1.7.1.Servicios de atención diurna. Tipo 1 | Servicio de respiro terapéutico | Contrato de prestación de servicios con la empresa Vitalitas, adjudicataria de la DFB para la gestión de la Residencia y Centro de día Abeletxe. |
| 1.9 | 1.9.1.Servicios de alojamiento temporal | 1.9.1.1.Piso de acogida para mujeres víctimas de violencia y servicio de | Prestación directa por parte de los Servicios Sociales Municipales de Ermua. |

| Nº. SERVICIO | DENOMINACIÓN DECRETO | SERVICIO MUNICIPAL | FORMA DE PROVISIÓN |
|---|---|---|---|
| | | asesoría jurídica y psicológica | |
| | | 1.9.1.3. Vivienda adaptada | Prestación directa por parte de los Servicios Sociales Municipales de Ermua. |
| | 1.9.2.Servicios de alojamientos permanentes | 1.9.2.1. Viviendas comunitarias para personas mayores | Contrato de prestación de servicios con la empresa Vitalitas, adjudicataria de la DFB para la gestión de la Residencia y Centro de día Abeletxe.<br>Con carácter provisional, y de acuerdo con la DFB, en tanto no se produzca la demanda de plazas de vivienda comunitaria que permita su viabilidad económica, el servicio se prestará mediante la contratación de una plaza residencial ordinaria. |

| *ZERBITZU zk.* | *DEKRETUAREN IZENA* | *UDAL ZERBITZUA* | *HORNIDURA MOTA* |
|---|---|---|---|
| *1.7* | *1.7.1. Eguneko arretarako zerbitzuak 1. mota* | *Atseden terapeutikoko zerbitzua* | *Zerbitzuak emateko kontratua Vitalitas enpresarekin (hau da, Abeletxe Egoitza eta Eguneko Zentroa kudeatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren enpresa esleipendunarekin).* |
| *1.9* | *1.9.1. Aldi baterako ostatu-zerbitzuak* | *1.9.1.1. Indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako abegi-etxea eta aholkularitza juridiko eta psikologiko zerbitzua.* | *Ermuko Udalaren Gizarte Zerbitzuek ematen dituzte zuzenean.* |
| | | *1.9.1.3. Etxebizitza egokitua* | *Ermuko Udalaren Gizarte Zerbitzuek ematen dituzte zuzenean.* |
| | *1.9.2. Ostatu iraunkorren zerbitzuak* | *1.9.2.1. Adinekoentzako etxebizitza komunitarioak* | *Zerbitzuak emateko kontratua Vitalitas enpresarekin (hau da, Abeletxe Egoitza eta Eguneko Zentroa kudeatzeko Bizkaiko Foru* |

Código de validación/*Balidazio kodea*
2P2P375U3I085B4F1ALE

| ***ZERBITZU zk.*** | ***DEKRETUAREN IZENA*** | ***UDAL ZERBITZUA*** | ***HORNIDURA MOTA*** |
|---|---|---|---|
| | | | *Aldundiaren enpresa esleipendunarekin).*<br>*Behin-behineko izaeraz eta Bizkaiko Foru Aldundiari jarraikiz, etxebizitza komunitarioen bideragarritasun ekonomikorako beharrezkoa den plaza-eskaeren kopurura iritsi ezean, egoitza-plaza arrunt bat kontratatuko da zerbitzua emateko.* |

***Zazpigarrena.*** *Hiritar batek, sarrera-prozeduran ezarritako baldintzak beteta, adineko pertsonentzako ostatu-zerbitzu iraunkorra eskatu edota hala aginduko balitzaio, eta Eremuko mugapean etxebizitza komunitario zerbitzurik egon ezean, hiritar hori bizi den udalerriko udala izango da zuzenean ordezko beste zerbitzu bat kontratatu beharko duen arduraduna, horren kostua beregain hartuz.*

**Séptima.** En el supuesto de que un/a ciudadano/a, cumpliendo las condiciones establecidas en el correspondiente procedimiento de acceso, solicitara o le fuera prescrito un recurso de alojamiento permanente para personas mayores, y en tanto en cuanto la demarcación Área no disponga del servicio de vivienda comunitaria, el Ayuntamiento a quien pertenezca dicho/a ciudadano/a, será el responsable directo de la contratación del servicio alternativo y de la asunción de los costes derivados del mismo.

***Zortzigarrena***. *Ermuko Udalak, Hitzarmen honen bidez, konpromisoa hartzen du bi udalerrietako herritarrei zerbitzuak ematean eskubide- eta betebehar-araubide bera aplikatzeko, jatorriaren araberako lehentasun-ordenarik ezarri gabe.*

**Octava.** Los Servicios Sociales que se asignan a la demarcación de Comarca, y que se prestarán por parte de una entidad diferente a los firmantes del presente acuerdo, se someterán a un acuerdo específico por parte de cada uno de los Ayuntamiento con la entidad prestadora.

***Bederatzigarrena***. *Ermuko Udalak, Hitzarmen honen bidez, konpromisoa hartzen du bi udalerrietako herritarrei zerbitzuak ematean eskubide- eta betebehar-araubide bera aplikatzeko, jatorriaren araberako lehentasun-ordenarik ezarri gabe.*

**Novena.** El Ayuntamiento de Ermua se compromete, mediante el presente Convenio, a aplicar el mismo régimen de derechos y deberes de acceso a los servicios a los ciudadanos y ciudadanas de ambos municipios, sin que en ningún caso se establezca un orden de prelación según el origen de los mismos.

***Hamargarrena***. *Ermuko Udalak urtean behin jakinaraziko dizkio Mallabiko Udalari*

**Décima.** Con carácter anual, el Ayuntamiento de Ermua notificará

*ofizialki hitzarmen honi lotutako zerbitzu bakoitzaren kostu errealak.*

***Hamaikagarrena*** *Hitzarmen honen eraginetarako, Eremuko mugapeari atxikitako zerbitzuak elkarren artean finantzatuko dituzte bi udalek, bi kontu hauek aintzat hartuz:*

- *Hornidura-kostuak; halakotzat hartuko dira zerbitzu bakoitzaren izaera eta mantentzetik eratorritako kostuak.*
- *Erabilera-kostuak, zerbitzuon hartzaileek horiei egindako erabileraren ondoriozkoak.*

***Hamabigarrena****. Mallabiko Udalak, hornidura-printzipioa aplikatuz, konpromisoa hartzen du Hitzarmen honi lotutako zerbitzuak mantentzen laguntzeko, Mallabiko herritarren erabilera edozein izanik ere, eta, horretarako, zerbitzuaren kostu errealaren araberako ekarpen-kuota bat ezarriko da.*

***Hamahirugarrena****. Ermuko Udalak zerbitzu-horniduraren urteko kostu zenbatetsia likidatu eta jakinaraziko dio Mallabiko Udalari.*

*Mallabiko Udalak urteko lehen seihilekoan ordainduko du zenbateko hori.*

*Behin aurrekontuaren likidazioa egin eta gero, Ermuko Udalak zerbitzuak izandako kostuaren behin betiko likidazioa egingo du eta Mallabiko Udalari emango dio jakitera, likidazio horren ondoriozko kopurua*

oficialmente al Ayuntamiento de Mallabia los costes reales de cada servicio sujeto al presente convenio.

**Decimoprimera.** A efectos del presente convenio, los servicios adscritos a la demarcación Área se financiarán mancomunadamente, en base a dos conceptos de coste:

- Costes de provisión, entendiendo por ello los costes derivados de la existencia y mantenimiento de cada servicio.
- Costes por uso, que son los derivados del uso de los servicios por parte de las personas destinatarias de los mismos.

**Duodécima.** El Ayuntamiento de Mallabia, en aplicación del principio de provisión, se compromete a contribuir al sostenimiento de los servicios acogidos al presente Convenio, con independencia del uso de los mismos por parte de la ciudadanía de Mallabia, para lo cual se establecerá una cuota de aportación según coste real del servicio.

**Decimotercera.** El Ayuntamiento de Ermua liquidara y notificará al Ayuntamiento de Mallabia el coste estimado anual de provisión de los servicios.

El Ayuntamiento de Mallabia abonará el importe resultante en el primer semestre del año.

Una vez efectuada la liquidación del presupuesto el Ayuntamiento de Ermua realizara una liquidación definitiva del coste del servicio que será comunicada al Ayuntamiento de Mallabia, ingresando o

*itzuliz edo, hala denean, eskatuz.*

requiriendo, en su caso, la cantidad resultante de dicha liquidación.

***Hamalaugarrena.*** *Zerbitzu bat ematean hornidura-kostua eta erabilera-kostua bereizteko aukerarik badago, Ermuko Udalak erabiltzailearen jatorri-udalerriaren arabera banatu eta kobratuko du azken kontzeptu hori, eta kasu horretan hilero egingo da kostuen likidazioa.*

**Decimocuarta.** En el caso de que la prestación de un servicio conlleve la posibilidad de diferenciar entre coste de provisión y coste por uso, el Ayuntamiento de Ermua procederá a la distribución y cobro de este ultimo concepto en función del municipio de origen de la persona usuaria, siendo en este caso la liquidación de  costes de carácter mensual.

***Hamabosgarrena***. *Gizarte Zerbitzuen Legea aplikatuz (zerbitzu horiek eskuratzeko eskubide subjektiboa finkatzen duen neurrian), udalerriaren eskumeneko zerbitzuren bat hornidura-fasean badago eta haren premia edo eskaera sortzen bada, Hitzarmen honi lotutako udal bakoitzak aurreikusita izango du zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren formula (Zorroari buruzko Dekretuaren 3.4.1 atala).*

**Decimoquinta.** En aplicación de la Ley de Servicios Sociales, que determina el derecho subjetivo de acceso a dichos servicios, en el supuesto de que alguno de los servicios que sean competencia del municipio, se encuentre en fase de provisión y se produzca la necesidad o demanda del mismo, cada Ayuntamiento sujeto al presente Convenio tendrá prevista la fórmula de Prestación económica vinculada al servicio (Decreto de Cartera 3.4.1).

***Hamaseigarrena.*** *Ermuko Udalak Mallabiko herritarrek erabili dituzten zerbitzuen kostuak fakturatuko dizkio Mallabiko Udalari, zerbitzuek baterako ordainketa gisa dituzten prezio publikoen ordenantza arautzaileak aplikatuz.  Mallabiko Udala arduratuko da bertako erabiltzaileei zerbitzuen prezioak kobratzeaz.*

**Decimosexta.** Con el objeto de unificar las condiciones de acceso a los servicios sociales y el copago correspondiente, si lo hubiera, los Ayuntamiento de Ermua y Mallabia se comprometen a trabajar conjuntamente en la elaboración de las Ordenanzas y Reglamentos de los servicios acogidos al presente convenio, para la aprobación por los dos Ayuntamientos.

***Hamazazpigarrena..*** *Eremuko lurralde-mugapea osatzen duen udalerri bakoitzaren ekarpena banatzeko irizpideak.*

**Decimoséptima.** Criterios de distribución de la aportación de cada municipio integrante de la demarcación territorial Área.

*1. Gizarte-zerbitzuen hornidurarako partaidetza ekonomikoa udalerri bakoitzeko biztanle kopuruaren arabera ezarriko da. Hori kalkulatzeko, 2016ko azaroan*

1. La participación económica de provisión de los servicios sociales se establecerá en proporción al número de habitantes de cada municipio. Para el cálculo se tienen en

*eguneratutako EUSTATen basetik atera ditugun datu hauek hartu dira kontuan.*

*Estatistika-banku horren arabera:*

- *Bi udalerrietako biztanleen guztizko kopurua 17.164koa da.*
- *Ermuak 15.989 biztanle ditu guztira, hau da, biztanle guztien % 93.*
- *Mallabiak 1.175 biztanle ditu, hau da, Eremuko lurralde-mugapeko biztanle guztien % 7.*
- *Datu horiek urtero eguneratuko dira behin behineko likidazioa egiteko momentuan, eta horretarako EUSTATek argitaratutako likidazioa dagokion urtearen otsailari dagozkion biztanleriaren datuak kontutan hartuko dira.*

*2. Udalerri bakoitzari dagokio Ermua-Mallabiko Gizarte Zerbitzuen Eremuari esleitutako gizarte-zerbitzuak mantentzen laguntzea, udalerri bakoitzeko biztanle kopurua kontuan hartuta, estipulazio honen 1. zenbakian adierazitako deskribapenari jarraikiz.*

*Zerbitzuen benetako kostua zehazteko, kostu osoa ezarri da, 1. eranskinean adierazitakoaren arabera Ermua-Mallabia Eremuari dagokion lehen mailako arretako zerbitzuen kostu zuzen, medial eta egiturazkoak aintzat hartuta.*

cuenta los siguientes datos, extraídos de la base de EUSTAT, actualizada en noviembre de 2016.

Según dicho banco estadístico:

- El total de población entre ambos municipios asciende a 17.164 habitantes.
- Ermua, tiene un total de 15.989 habitantes, lo que supone el 93% de la población total.
- Mallabia, tiene una población de 1.175 habitantes, que supone el 7% del total de la población de la demarcación territorial Área.
- Estos datos se actualizan anualmente en el momento de realizar la liquidación provisional, para ello se tendrán en cuenta las cifras de población publicadas por EUSTAT del mes de febrero del año al que se refiere la liquidación.

2. Corresponde a cada municipio contribuir al sostenimiento de los Servicios Sociales atribuidos al Área de Servicios Sociales Ermua-Mallabia en función del peso poblacional de cada municipio, según la descripción expresada en el punto 1 de la presente estipulación.

Para determinar el coste real de los servicios, se establece el coste total de los mismos, integrado por los costes directos, mediales y de estructura de los servicios de atención primaria correspondiente al Área Ermua-Mallabia, según lo señalado en

anexo 1.

***Hamazortzigarrena****. Ermuko eta Mallabiko Udalek hartutako konpromisoaren arabera egin beharreko finantza-ekarpenak ez dira izango Hitzarmen honen ondoriozko gastuak baino handiagoak.*

**Decimoctava.** Las aportaciones financieras que se comprometen a realizar los Ayuntamientos de Ermua y Mallabia, respectivamente, no podrán ser superiores a los gastos derivados de la ejecución de este Convenio.

***Hemeretzigarrena.*** *Udalerri bakoitzeko talde teknikoei dagokie protokoloak eta erregelamenduak lantzea, gero udalek onar ditzaten, dagokionean.*

**Decimonovena.** Corresponderá a los equipos técnicos de cada municipio la elaboración de protocolos y reglamentos de derivación que serán sometidos a la aprobación de los respectivos Ayuntamientos.

***Hogeigarrena.*** *Hitzarmenaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, mahai bat eratuko da, bi udalerrietako alkateek izendatutako ordezkari politiko eta teknikoez osatua. Mahaia urtean behin, azaroan, bilduko da, nahiz eta behar izanez gero nahibeste ezohiko bilera egiteari utzi gabe.*

**Vigésima.** Se constituirá una mesa de seguimiento y evaluación del convenio constituida por representación política y técnica de ambos municipios, por designación de los/as respectivos/as Alcaldes/as, que se reunirá con carácter ordinario una vez al año, estableciéndose para ello el mes de noviembre, sin perjuicio de cualquier otra reunión de carácter extraordinario a que hubiera lugar.

***Hogeita batgarrena.*** *Hitzarmen honen zuzendaritza fakultatiboa Ermuko Udaleko Gizarte Zerbitzuen zuzendariari esleitu zaio.*

**Vigesimoprimera.** Se designa la dirección facultativa del presente convenio al/a Director/a de los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Ermua.

***Hogeita bigarrena.*** *Hitzarmen honen iraupena lau urtekoa izango da, 2017ko abenduaren 1etik aurrera zenbatuta, baina aldeak ados jarri ezkero, luzapenak egin ahal izango dira.*

**Vigesimosegunda.** El presente convenio tendrá una duración de cuatro años a contar desde el día 1 de diciembre de 2017, sin perjuicio de las prórrogas que puedan acordarse unánimemente por las partes firmantes.

*Adierazitako epea amaitu baino lehen edozein momentutan, honako hitzarmena sinatu duten toki-erakundeek berau beste lau urtez, gehienez, luzatzea edota iraungitzea adostu dezakete.*

En cualquier momento anterior a la finalización del plazo previsto en el apartado anterior, las entidades locales firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo máximo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

*Hitzarmen hau sinatu duten toki-erakundeek hartutako konpromisoaren arabera, berau finantzatzeko behar diren kredituak kontsignatuko dituzte dagokion urteko aurrekontuan.*

Las entidades locales firmantes del presente convenio se comprometen a consignar los créditos necesarios para la financiación del presente convenio en los Presupuestos anuales correspondientes.

*Nolanahi ere, luzapenak egin ahal izateko, erakunde sinatzaileek dagokion urteko aurrekontu-kredituak onartu beharko dituzte lehenago.*

En todo caso, la/s prórrogas estarán condicionadas a la aprobación de los correspondientes créditos presupuestarios por las entidades firmantes.

***Hogeita hirugarrena.*** *Honako hitzarmenak administrazio-izaera du, beraz, herri-administrazioen arteko lankidetza-hitzarmenei aplikatu beharreko administrazioaren ordenamendu juridikoak eraenduko du bere interpretazio eta garapenari dagokienean,*

**Vigesimotercera.** El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre Administraciones Públicas.

*Berau interpretatu eta betetzerakoan sor litezkeen gai eztabaidagarriak administrazioarekiko auzien jurisdikzioak ezagutu eta ebatzi beharko ditu.*

Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en su interpretación y cumplimiento serán de conocimiento y competencia de la jurisdicción contencioso-administrativa.

***Hogeita laugarrena****. Hala eta guztiz ere, hitzarmen hau sinatu duten alderdietako batek hitzarmenean jasotako baldintzak erabat edo zati batean betetzen ez dituenean, beste alderdiak hitzarmenaren eraginkortasuna eten egin dela ulertu ahal izango du berehala, eta, horren ondorioz, dagozkion konpromiso eta betebeharretatik aske geratuko da eta eragindako kalteen ondoriozko —hirugarrenei eragindako kalteak barnean hartuta— konpentsazio ekonomikoa eskatu ahal izango du, eskuragarri dituen lege-tresnen bidez.*

**Vigesimocuarta.** Esto no obstante, y con carácter inmediato, cuando concurran circunstancias de incumplimiento total o parcial de los términos recogidos en el presente convenio por una de las partes firmantes, la otra podrá entender que el convenio ha cesado en su eficacia, y en consecuencia quedará liberada de sus compromisos y obligaciones correspondientes, pudiendo reclamar mediante los instrumentos legales a su alcance la compensación económica por los perjuicios ocasiones, incluidos los perjuicios ocasionados a terceros.

*Eta ados daudela erakusteko, honako hitzarmena sinatu dute, batetik, CARLOS TOTORIKA IZAGIRRE Ermuko alkateak, eta bestetik IGOR AGIRRE BARRIENTOS Mallabiko alkateak.*

Y en prueba de conformidad, firman el presente convenio quienes, por una parte: D. CARLOS TOTORIKA IZAGIRRE, Alcalde de Ermua, y por otra, D. IGOR AGIRRE BARRIENTOS, Alcalde de Mallabia.

Código de validación/*Balidazio kodea*
2P2P375U3I085B4F1ALE

***BIGARREN.-*** *Alkateari behar diren dokumentu guztiak sinatzeko ahalmena ematea, erabaki hau eraginkorra izan dadin.*

**SEGUNDO.-** Facultar al Alcalde para la firma de cuantos documentos sean necesarios para la efectividad de este acuerdo.

***HIRUGARREN.-*** *Udal Webgunean argitaratzea, Hitzarmenen atalean.*

**TERCERO.-** Publíquese en la Web municipal en el apartado de Convenios.

*Beste gairik ez dagoenez aztertzeko, bilkura amaitutzat eman da 9:55 direnean eta nik, Idazkariak naizenez legez, jasotako guztiaren fede ematen dut.*

No habiendo más asuntos a tratar, se da por finalizada la sesión levantándose la misma a las 9:55 del día de la fecha, de todo lo cual yo como Secretaria, doy fe.

*Akta honek hogeitalau horri ditu alde bietatik idatzita eta 585etik 631era zenbakituta.*

Consta esta acta de veinticuatro folios escritos por ambas caras, que lleva número 585 al 631.

Fdo./Sin.:
Alcalde/Alkatea
Carlos Totorika Izagirre
03-11-2017 09:20

Fdo./Sin.:
Secretaria/Idazkaria
Mª Mar Arranz Olmos
02-11-2017 13:28